

B

BARREN

TOKIKOM

IRPH hipoteka indizearen gatibu

Imanol Goikoetxea,
Kaleratzeak Stop taldekoa





X. URTEURRENA

JULIAN ZUBIAURRE ZELAIA

2003ko azaroaren 23an hil zen, 48 urte zituela.

*“Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko”*

Etxekoak



ESKERTZA

TERESA OTAMENDI ZUBIMENDI

2013ko azaroaren 19an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

LUIS FERNANDO AYESTA RUBIO

*“Zure baikortasuna eta sendotasuna
miresgarriak izan dira”*

Zure sendiak

2013ko azaroaren 17an hil zen, 56 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



X. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE

*Edur zurittan hazittako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasan aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.*

Zure familia eta lagunak

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. X. urteurreneko meza, azaroaren 26an, martitzenean, izango
da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





Esti
Gonzalez

Azaro, azaro, hazia erein eta itxaro. Badirudi horrelako zerbait gertatu zaiela Fagor elektrotresnetakoei, Miren. Azken egunotan albigtegieta izugarritzko bonbardeaketa jasan dugu, kooperatibismoaren

gainbehera datorrela gorai patuz. Nire uste xumean, aldiz, eta kooperatibista naizen aldetik, enpresa baten kudeaketa kaxkar baten aurrean gaude. Erein, eta gehiegi itxarrotearena. Eragin handia izango du euskal ekonomian, taldeko beste kooperatibetan, Debagoienan.... azken traka potoloegia krisia bukatzeaz dagoela dioten garai honetarako. Baina hortik eredu kooperatiboa krisian dagoela esatera, gehiegitxo esatea dela uste dut.

“Kooperazioa eta kolaborazioa hainbat ekimenen oinarrian ikusteak pozten nau”

Kooperazioa eta kolaborazioa hainbat ekimenen oinarrian dagoela ikusteak pozten nau. Guk biok ongi ezagutzen dugun ekimen bat datorkit burura, Mendaroko gure familiarteko/lagun batek sorturikoa, “Atera trapaak saltzera” facebook-eko taldea. Herri-bailara-probintzia mailan gauzak trukatu, saldu edota ematen dira bertan. Gure trastelekua husten ari gara berari esker, eta, bestalde, behar ditugun gauzak eskuratzen. Eta zer esan ikastoletan hain arrakastatsuki burutzen diren jolas kooperatiboez? Helburu komuna lortzeko asmoz, ematean eta jasotzean oinarritzen diren jolasak dira. Umeek laguntza eman eta jaso behar dute helburu komunetara iristeko, nolabait lehiakortasunetik ihes eginez eta kolaborazioan oinarrituz.

Nahiz eta askotan harremanak, taldelana, eta antzerako baloreak krisian daudela iruditzen zaizkigun, badago itxaropena. Utz dezagun lehiakortasuna alde batera eta goaz elkarlanean helburu komunak lortzera. Has gaitezen hazia ereiten, Miren, gehiago itxaron gabe.



Miren
Vives

Hazia erein baino gehiago egin dugula iruditzen zait niri, Esti. Izan ere, badaramazkigu urte batzuk egitasmo komunekin: ez al zaizu iruditzen gure umeak iritsi zirenean gure bizitzek geureak izateari utzi eta nolabait plazaratu egin zirela? Plazaratu diot, bai, irudizko adieran eta errealtatean. Izan ere guraso bihurtzean gure indibidualtasuna, ezinbestean, alde batera utzi behar dugu kalean pasatzen ditugun ordu horietan: nahi eta nahi ez tribuaren

parte bihurtzen gara. Hor sortzen dira aipatu dituzun errota eta traste trukeak, liburu eta web orri interesgarriak erreferentziak, hazkuntza eta hezkuntzaren inguruko hausnarketak. Kooperatiba bat osatzen dugu geuk ere, etekin edo helburu geure familia=tribuaren elkarbizitza izango duen kooperatiba.

“Guraso egitean, nahi eta nahi ez tribuaren parte bihurtzen gara”

Arrazoi duzu garaiak aldatu direla esatean. Oraingo enpresek ez dute Danobat edo Gurelan izenik hartuko, baina horrek ez du elkarlana saihesten dugunik esan nahi. Sarean talde lanean oinarritzen diren ehundaka egitasmo ezberdin aurkituko dituzu: *crowdfunding* motakoetatik hasi eta *change.org* modukoetara. Ekimen hauek eskatzen duten inplikazio maila, noski, baxuagoa da: norberak erabakitzen du unean uneko parte-hartzea. Bestalde, ezezagunekin (edo urrunekoekin) partekatzen duzun jardun bat da; agian zeure auzokoek ere egitasmo berbera bultzatzen dute, baina ez duzue elkarren berri. Gaur egungo paradoxa eta xeblekerien adibide bat ote?

Paradoxa ala ez, sare sozialen alderik onena birtuala izatetik ukigarri izatera pasatzen direnean dela deritzot, hau da, plazaratzen direnean. Plazaratu gaitezen bada geu ere, geure ardura, poz eta proiektuekin elkarlanean etorkizunari heltzeko. Bide batez, zerbeza bat ere har dezakegu ostirala ospatzeko.

Laster ezkontza gehigarria
 Publizitatea egin nahi baduzu jarri gurekin harremanetan

B BARREN

943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA 1964-2014

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibar
biZi biZItza



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ateak Ireki webgunearen itxiera salatu du Hekimenek

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak (tar-tean, BARREN) salatu nahi du Ateak Ireki izeneko webgunearen itxiera, eta elkartasuna agertu nahi die atari hori martxan jarri eta bertan lanean aritu diren guztiei.

Hekimenek informazio askatasunean sines-tzen du. Komunikabide bat itxteak askatasun ho-rrin aurka jotzen du bete-betean, komunikabi-deek horixe egiten dutelako, informazioa askata-sunez zabaldu, hedatu eta gizarteratu. Ateak Ire-ki ekimenaren galera, alde horretatik, herritarrek informatuak izateko daukaten askatasunaren kontra doa.

Donostian, 2013ko azaroaren 14an.

Hekimen

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Espaloia errepedearekin berdindu behar da: "Santa Klara auzoko espaloi askok ez dute irisgarritasun neurririk betetzen. Auzo horretan bizi garenek zailtasunak izaten ditugu umeen autoarekin edo gurpildun aulkiarekin ibiltzeko, eta eskertuko genuke espaloia errepedean altuera be-rean jartzea. Herriko beste leku batzuetan ere gauza bera gertatzen da, beraz, ar-zoa ez da gurea bakarrik. Neurri hau herri osoan hartzea eskatzen dugu".



Sigmako autobus geltokia adierazteko kartela behar da: "Eskolarako autobusa Sigmako aparkaleku berrian geratzen da, baina ez dago autobus geltokia hor dagoela adierazten duen kartelik. Iruditzen zaigu beharrezkoa dela, eta eskertuko genuke jartzea".



Txalo bero bat Morkaikori: "Txalo bero bat merezi dute Morkaiko mendizale elkarteko arduradunek, urte osoan zehar egindako lanagatik, baina bereziki, Karakateko Igoeragatik. Partaidetza urtetik urtera altuagoa da, eta kalitatezkoa gainera, eta ikusleek ere ez dute hutsik egiten. Zapatuan ere, hotz egin arren, Karakate puntan jendetza batu zen, partaideei azken metroetan animoak emateko. Aurten izozki eta kafeak banatzen dituen furgonetaren falta igarri dugu, ez izozkiengatik, baizik eta kafe beroarengatik. Hurrengo urterako ondo egongo litzateke kafea edo salda eta txorizoa jartzea, barrena berotzeko. Segi horrela!"



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari papera eskuratu nahi duzue?

1€

BARREN astekarian
eta
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartearen
salgai

ELGOIBARKO IZARRA 50



Maalako parkea estaltzeko proiektua aukeratzeko ideia-lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak

200.000 euro inguru aurreikusi dituzte obra hori egiteko

Elgoibarko Udalak gune estali baten beharra ikusi du, eta Maalan kokatzea erabaki du. Maalako parke guztia estaliko dute, ziburuak barne. Bi aukera ikusi dituzte horretarako: estalpe bakarra egitea, edo bi egitea, bata, parkea estaltzeko, eta bestea, ziburuak estaltzeko. Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz, lehiaketa bidez aukeratu dute proiektua. Interesa azaltzen duten enpresen proiektuak ikusgai jarriko dituzte Kultur Etxean urtarrilaren 22tik otsailaren 5era, eta herritarrek gustukoena duten proiektua bozkatzeko aukera izango dute. Enpresa irabazleak egingo du obra, bigarrenak 3.000 euro irabaziko ditu, eta hirugarren sailkatuak 2.000 euro. Elgoibarren erroldatutakoek edo Elgoibarren lan egiten duten enpresek bakarrik parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Proiektua aukeratu bezain laster hasiko dira obrak, eta 2014an gauzatuko dute proiektua. Udalak 200.000 euro inguru aurreikusi ditu lan horretarako.



Espainiako Giza Eskubideen Saria eman diote Jaime Arreseri



Espainiako Giza Eskubideen aldeko elkarteak 2013ko Giza Eskubideen Sari Nazionala eman die Jaime Arrese Araolaza elgoibartarrari, Marixabel Lasari eta Txema Urkijori. Elkarteak ohar batean gogora ekarri duenez, ETAko biktimen senitartekoak dira Maixabel Lasa eta Jaime Arrese eta, Txema Urkijorekin batera, Eusko Jaur-laritzako Biktimen Bulegoan aritu izan dira lanean, bi legegintzalditan. “Biktima diren heinean, goraipagarria da Euskadin bakearen alde egindako lana eta konpromisoa, giza indar handiko ekimenak bultzatuz eta biktimen eta ETAko kide ohien arteko topaketak sustatuz”, nabarmendu du Espainiako Giza Eskubideen aldeko elkarteak bere webgunean argitaratu duen oharrean.

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak Elgoibar bisitatu zuen

Elgoibarko errealitatea gertutik ezagutzera etorri zen joan zen astean Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia. Goizean, Elgoibarko Udaleko zinegotziekin eta langileekin batu zen herriaren azterketa egiteko. Mausitxa baserria bisitatu zuen ondoren, eta lehen sektoreak gure gizartean duen garrantzia nabarmendu zuen ahaldun nagusiak. IMHra joan zen ondoren, eta hango ikasleekin batu zen, lan munduaz eta etorkizunaz berba egiteko. Kondia enpresan ere izan zen, eta arratsaldean herritarren galderak erantzun zituen musika eskolan. Garraio publikoa, zaborra, krisia eta bide gorrien gaiei buruzko galderak jaso zituen, besteak beste.



Martin Garitano, Kondia enpresan.

Izena **Jokin Urain**



Jokin Urain semearekin.

Jokin Urain *Kixkur* (Mendaro, 1959) preso libre dago eguaztenaz geroztik. Martitzenean jakin genuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak libre uzteko eskatu zuela, eta martitzenean bertan hasi zen Auzitegi Nazionala Urainen eta beste hainbat presoren gaiak aztertzen. Eduardo Torres Dulce Espainiako fiskal nagusiak esan zuen «mingarria izan arren» ez zeukatela Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Parot doktrinaren kontra jarritako epaia doktrina ezarritako presoei aplikatu beste aukerarik.

Komunikabideek eguazten goizean zabaldu zuten Auzitegi Nazionalak Jokin Urain libre lagatzeko erabakia hartu zuela, eta ordu gutxiren buruan laga zuen Herrera de la Manchako kartzela (Manzanares, Gaztela Mancha, Espainia).

Jokin Urain 1986an atxilotu zuten ETAko kide izatea leporatuta. 27 urtean Espainiako kartzela ezberdinak ezagutu ditu, eta gaur egun, Herrera de la Manchako kartzela zigorra bete ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak 197/06 doktrina ezarri eta kartzelaldia 2016 urtera luzatu zion.

Irudia **Magosto**



Arg.: Aitor

Udazkenaren etorrera ospatzeko Magosto jaia ospatu zuten zapatuan Elgoibarren, Galiza Kultur Etxeak antolatuta. Krisiaren eraginez azken bi urteetan ez dute Magosto jairik antolatu, baina aurten berreskuratu egin dute ohitura hori. Gaztainak eta Galizako ardoak dastatzeko aukera izan zuten elgoibartarrek, zapatu goizean.

1.500 euroko diru-laguntzak ekintzaileentzat

Ekintzaileentzako 1.500 euroko diru-laguntzak eskainiko ditu Debegeesak, Lanbiderekin elkarlanean. Negozio ideia bat dutenentzat edo norberaren enpresa propioa martxan jarri nahi dutenentzat izango dira laguntza horiek, eta interesatuek azaroaren 30era arte dute eskaerak egiteko epea. Egitasmo honekin Debegeesak ekintzailetasuna sustatu nahi du Debabarrenean, ekintzailetza-prozesuaren fase bakoitzean ekintzaileei euren behar eta ezaugarrietara egokitutako laguntza eskainiz. Informazio gehiagorako 943 820 110 telefonora deitu daiteke.

Elkar ondo tratatzeko ikastaroa antolatu du Kalamua guraso elkarteak

Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak antolatuta abian da elkar ondo tratatzen ikasteko tailerra. Seme-alaben eta euren lagunen arteko harremanak landuko dituzte, besteak beste. Bigarren saioa datorren martitzenean egingo dute, 18:00etatik aurrera Kultur Etxeko sotoan.

23 lagunek hartu zuten parte garraio publikoa hobetzeko bileran

Gipuzkoako garraio publikoko sistema hobetu nahi du Foru Aldundiak, eta horretarako, partaidetza prozesua du. Herriz-herri dihardute bilerak egiten, eta Elgoibarren ere izan dira herritarren beharrak eta kezkak jasotzen. 23 lagunek hartu zuten parte bilera horretan, eta, besteak beste, eskualde barruko zerbitzuez, eskualde arteko loturaz, autobusen maiztasunaz, ibilbideaz, ordutegi... berba egin zuten teknikariek. Jasotako ekarpenekin txosten bat osatuko dute ardurdunek eta beste bilera baterako deia egingo dute.

Haritz dantza taldea, 40 urte dantzan



40 urte bete ditu Haritz euskal dantzari taldeak aurten, eta urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte urtean zehar. Urtea amaitzear da, baina, eta dantza taldearen ospakizunak ere iritsi dira amaierara. Bihar egingo dute 40. urteurreneko ekintzen barruan antolatutako azken dantzaldia, eta urteurrenari amaiera borobila emateko, 40 urteko ibilbidean bidelagun izan dituzten sei dantza talde gonbidatu dituzte Elgoibarrera: Gure Kai (Deba), Duguna (Iruñea), Kezka (Eibar), Andra Mari (Galdakao), Argia (Donostia) eta Elai Alai (Portugaleta). Dantzaldia 12:00etan izango da Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Herriko Antzokian).

Haritz dantza taldeak 40 urte egin ditu aurten, eta 40 urteko ibilbide hori jasotzeko, Elgoibar Dantzan liburura jo du BARRENEK. Han datorren informazioaren arabera Elgoibarren zeuden dantza talde gehientsuenak elizari lotutakoak ziren 50eko hamarkadan, baina hamarkadaren amaiera aldera, dantza taldeak kultur elkarten eskuetara pasatzen hasi ziren. 50eko azken urteetan Baltasar pilotazale elkarteak hartu zuen aurrekua

antolatzeko ardura, eta sanbartolomeetako soka-dantzaz gain, auzoetako jaietan ere dantzatzen zuten aurrekua. 1961ean Ongarri kultur elkarteak hartu zion erreleboa Baltasarri, eta 1964an, jaietako soka-dantza Txiki Egunean egin beharrean San Bartolome Egunean bertan, hau da, abuztuaren 24an, egitea erabaki zuten.

1964an Elgoibarko Izarrak bere lehen dantza taldea sortu zuen. Umeen dantza taldea zen. Garai hartan Euskal Jaiak edo

Haurren Jaiak indar handia hartzen ari ziren, eta Elgoibarren, 64an antolatu zuten estreinako Euskal Jaia. Horrez gain, San Anton egunean Odeon antzokian egiten zen jaialdian ere parte hartzen hasi ziren Elgoibarko Izarrako dantzariak.

Urte berean, bestalde, estreinako dantza talde tradizionala sortu zen herrian: Elorra dantza taldea. 1964ko abenduaren 25ean aurkeztu zuten taldea, eta hurrengo urtean hartu zuten San Bartolome eguneko

soka-dantza antolatzekeo ardura. 1972an egin zuten azkenekoz soka-dantza, eta ondoren, taldea desagertu egin zen.

Elorra taldea desagertzerakon dantzari nagusiz osatutako dantza talderik gabe geratu zen Elgoibar, eta sanbartolomeetako aurrekua bertan behera geratzeko arriskuan egon zen. Horren beldurrez, San Bartolome Egunean aurrekua dantzatzeko lanean hasi zen taldetxo bat. Elorrako dantzari izandako batzuk, eta egun horretarako apropos prestatutako beste batzuekin moldatu zen taldea, baina oinarrizko zutabea Elgoibarko Izarrako umeei dantzak erakusten ari zirenek osatu zuten. Ion Arrietak bultzatu zuen bereziki talde hori. Arrieta Ongarrin dantzari eta Elorran txistulari ibilitakoa zen, eta Elgoibarko Izarrako dantza eskolari oso lotuta zegoen.

1973ko abuztuaren 24an irten zen estreinakoz dantza talde hori plazara, eta horixe izan zen Haritz dantza taldearen sorrera. Osatzen ari zen taldeak bi norabide zehaztu zituen bere lanean: Batetik, Elgoibarko tradizioak mimoz gordetzea, eta bestetik, aurrera begirako errepertorioan sakondu eta eduki berriak ikastea.

Eta zeregin horretan berehala agertzen da dantzari handi baten izena: Juan Antonio Urbeltz. Lehenengo urratsak eman orduko jarri ziren Haritz dantza taldekoak Urbeltzekin harremanetan. 1974an, Ion Arrieta Donostian ikasten ari zela, hango Argia dantza taldearekin hasi zen Gipuzkoako dantzak ikasten, ondoren Elgoibarren ira-

kasteko. 1985ean Jose Inazio Sarasuak hartu zuen Haritz dantza taldearen ardura, eta oso harreman estua izan zuen Urbeltzekin hasiera-hasieratik. Elgoibarko dantzariak Donostiako Argia taldeko maisuekin ikasi zituzten dantza asko. Harreman horrek gaur egunera arte iraun du, eta oraindik ere, Haritz eta Urbeltzen arteko harremana sendoa da.

1973ko abuztuaren 24an irten zen estreinakoz Haritz dantza taldea plazara

Sanbartolomeetako soka-dantzari eta Elgoibarko Izarrako umeen irakaskuntzari begira eman zituen lehenengo urratsak Haritz dantza taldeak, baina taldea indartu ahala, emanaldiak zabaltzeko grina piztu zitzairen taldeko kideei. Umeei irakasteko dantzen kopurua hazten zihoan, eta gutxi behar izan zuten dantzari helduen talde iraunkorra osatu eta dantza saioak eskaintzen hasteko. 1976an Trinitateetako danborradan dantzatu zuten, eta Morkaikok antolatutako Finalista Egu-

nean ere egin zuten agerraldia, Idotorben. 1977ko urtarrilean, berriz, hainbat dantzaz osatutako jaialdia eskaini zuen taldeak, Odeon antzokian. Elgoibarko Izarrak San Anton Egunez egiten zuen kultur jaialdiaren harira, huts-hutsean dantzaz osatutako ikuskizuna eskaini zuten. Bi orduko saioak "aseta" utzi zituen antzokian bildu ziren herritarrak, eta garaiko egunkarietan ere oso kritika onak jasoz zituzten. Jaialdiak nekea ekarri zuen, eta bost urte pasatu ziren horrelako beste jaialdi bat antolatu zuten arte. 1981eko Gabon Zahar Egunean, baina egun haizetsua irten zen, eta Odeon antzokia argindarrik gabe geratu zen. Bi egun beranduago eskaini zuten saioa, eta berriz ere, erantzun beroa eman zuten elgoibartarrak.

Hurrengo urteetan gorabehera handiak izan ziren taldean. Dantzarien belaualdi aldaketaren ondorioz, dantzari berriak eta lehenik jarraitzen zuten batzuk osatzen zuten taldea. Emanaldiak ziurtatzeko eta bide batez, taldea indartzeko beste herri batzuetako dantza taldeekin hasi ziren jaialdiak antolatzen, eta bide horretatik, Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatzekeo lehen urratsak eman zituzten 1986an. Portugaleteko Elai Alai taldearekin harremanetan jarri ziren, eta 1987ko uztailaren 23an egin zuten lehen jaialdia atzerriko dantzariekin. Orduetik, hutsik egin gabe antolatzen da urtero Nazioarteko Folklore Jaialdia, uztail amaieran.





EIRE VILA eta MAIALEN ASTICARRAGA

**“Haritz dantza
taldea osasuntsu dago”**

40 urte bete ditu Haritz dantza taldeak, baina oraindik gazte dago. 49 lagunek osatzen dute gaur egun dantza taldea, 30 emakumezko eta 19 gizonezko, hain zuzen ere. Zortzi laguneko zuzendaritza talde batek dauka dantza taldearen ardura, eta eurek zaintzen dute taldearen norabidea. Horietako bi ekarri ditugu gaur BARRENERA, eta egungo egoeraz eta etorkizunaz jardun dugu beraiekin:

Nola bizi duzue 40. urteurrena?

Urteroko ekintzez gain, lau edo bost ekintza berezi antolatu ditugu, baina oro har, ospakizun xumea izan da. Urtarilean mozorrotzeari buruzko hitzaldia eskaini zuen Oier Araolazak, eta horri lotuta, Koko Dantzak egin genituen inauterietan. Batzuei asko gustatu zitzairen, eta beste batzuei ez horrenbeste, baina kultura hori hor dago eta gure nahia hori erakustea zen. Apirilean Zuberoako maskaradak ikustera joan ginen, eta autobusa ez bazen erabat bete ere, giro polita sortu zen irteera hartan, eta joan ginenok pozik itzuli ginen. Abuztuan Soarteren *Apur batean sokadantza* erakusketa jarri genuen ikusgai, eta herritar asko pasatu ziren Kultur Etxetik. Biharkoa izango da urteurreneko azken ekitaldia. Euskal Herriko sei dantza talde etorriko dira, une honetan Euskal Herriko talde onentsuenak dira. Aspaldian maila honetako dantza ikuskizunik ez da egon Elgoibarren.

Sanbartolomeetako soka-dantza ez desagertzeko sortu zen Haritz dantza taldea 1973an. Gaur egun zein da taldearen zeregina Elgoibarren?

Hasierako helburu horri eusten diogu oraindik ere, eta soka-dantza egiten jarraitzen dugu, baina horrez gain, gure fol-

klorearen eta beste kultura bateko folklorea ere erakusten saiatzen gara. Errosario Kaleko Ama Birjinaren ezpata dantza ere birsortu dugu, eta auzoetan ere egiten dugu dantza. Nolabait esateko, tradizioa berreskuratzea eta egungo folklore berria ezagutzera ematea da gure zeregina. Euskal Herriko dantza desberdinak ikasten ahalegintzen gara, gero herriari erakusteko.

Elgoibartarrak gerturatzen al dira dantzarra?

Bai, dantza eskola da gure harrobia eta jende asko dabil dantza ikasten. Egia da neskak direla batez ere dantzara gerturatzen direnak, eta mutilak ere animatu nahiko genituzke. 16-17 urte betetzen dituztenean sartzen dira neska-mutilak Haritz dantza taldean, eta adin hori ez da erraza izaten. Batzuk kanpora joaten dira ikastera, beste batzuk eskubaloian edo futbolearen ere ibiltzen dira eta dantzarako konpromisoa ez da erabatekoa izaten. Dantza afizioa da taldekide gehienontzat, eta bakoitzak erabakitzen du zenbaterainoko inplikazioa eskaini nahi dion. Garai batean euskaldun izatearekin lotzen zen dantza, eta oso garrantzitsua zen euskal dantzak ikastea, eta familian dantzari bat edukitzea sekulakoa zen. Gaur egun hori

aldatu egin da, eta jendeak ez du lotzen euskaldun izatea dantzarekin. Dena dela, une honetan gazte asko ditugu taldean eta horrek bizitasuna ematen dio taldeari. Taldea osasuntsu dago, eta etorkizuna ziurtatua daukagu. Ez dakit nola iritsiko garen 50. urteurrenera, baina seguru iritsiko garela.

Norbaitek Haritz dantza taldean parte hartu nahiko balu, zer egin beharko luke?

Atea zabalik dago dantzara etorri nahi duen edonorentzat. Umetatik hastea izaten da egokiena, hau da, dantza eskolan hasi, eta gero Haritz dantza taldean sartzea. Baina gazte edo helduren batek Haritz dantza taldean sartu nahiko balu, gurekin harremanetan jarrita aurkituko genuke bideren bat. Dantza batzuk ikasi beharko lituzke lehendabizi, eta gero entseguetan parte hartu, baina guk ez diogu inori aterik itxen.

Zeintzuk dira Haritz dantza taldearentzat urteko zita garrantzitsuenak?

Nazioarteko Folklore Jaialdia, sanbartolomeetako soka-dantza eta Errosario kaleko ezpata dantza letra larriz idatzita daude Haritz dantza taldearen egutegian. Hiru horiek bereziak dira, baina gainontzeko ekitaldiak ere ezin ditugu ahaztu.

Erretratu zaharra



1941

Aste honetako erretratu zaharra Lucia Arrietak ekarri du BARRENERA. 1941. urtean ateratako argazkia da, Lerungo futbol zelai zaharrear. Garai hartan tiro txapelketak egiten ziren Elgoibarren, eta ospe handiko txapelketa izaten zen. Jende askok hartzen zuen parte, eta ikustera ere jende asko etortzen zen, bai herritarrek eta baita kanpotarrak ere bai. Ikusleen artean, jende ezaguna ere batzen zen: Fabiola, ondoren Belgikako erregiña izan zena, eta Jaime de Mora y Aragon ere behin baino gehiagotan etorri izan ziren Elgoibarko tiro lehiaketa ikustera.

Ezkerretik eskumara: Pedro Muguruza (†), Eugenio Gabilondo (†), Avelino Arrieta (†), Jose Arrieta eta Pepe Arrillaga (†).



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEan argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Kalebarren Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

IMANOL GOIKOETXEA

IRPH INDIZEAK KALTETUETAKO BAT

Kaleratzeak Stop plataformako kidea da Imanol Goikoetxea (Arrasate, 1972). Mendaron bizi da, IRPH hipoteka indizeak kaltetuetoako bat da, eta bere kasua argitzeko eta antzeko egoeran edo okerragoan zeudenei laguntzeko, Kaleratzeak Stop Debabarrenako taldea sortu zuen beste lagun batekin batera. Ostegunero, 19:00etan, Eibarko Portalea kultur etxean elkartzen dira kaltetutako lagun talde bat. “Engainatuak” sentitzen dira, eta Estrasburgoko Auzitegi Gorenak arrazoia eman berri die, IRPH indizea legez kontrakoa dela ebatzita. Legez kanpokoa izanda ere, hilean behar zutena baino gehiago ordaintzen ari direla salatu dute, eta “higuinduta” daude. Datorren astearterako hitzaldia antolatu dute Ermuko Udaleko Gizarte gaietarako arduradunekin batera (18:30ean, Ermuko Lobiano jauregian).

“300 bat euro gehiago ordaintzen ari naiz hilean IRPHagatik”



IRPH indizeak kaltetuetoako bat zara zu. Zein da zure kasua?

Hipoteka eskatzera joan nintzenean, gutako gehienok bezala, nik neuk ez neukan ideiarik ere ez, eta sartu zidaten ederra!. Maileguetako testuak inork ez ulertzeko moduan idazten dituzte, gainera, eta nirea ere halakoxea zen. Egoera horretan Kutxako sukurtsaleko zuzendariak IRPHa saldu zidan. Euribor indizearen aldean IRPHak gorabehera gutxi zeu-

kala esan zidan, eta horrenbestez, hobe zela. 2008ko urria zen, sasoi hartan Euriborra altu xamar zebilen, eta nik sinistu egin nion, nik baino gehiago jakingo zuelakoan. Baina ordutik, sekula ez dut ordaindu Euribor indizea+diferenzial jakin bat dutenek beste edo gutxiago. Beti ordaindu dut gehiago, baina beti pentsatu izan dut Euriborrak nabarmen gora egiten zuen egunean ni salbu egongo nintzela, halaxe esan zidan zuzendari hark-

eta. Baina hori ez da gertatu. Euriborra behera egiten hasi zen, eta aldiz, IRPHa bere horretan mantentzen zen edo gora egiten zuen [2000. urtetik aurrerako bilakaerari begiratu gero, beti Euriborraren gainetik egon da IRPHa. Paretsu zenbait urtetan, baina alde handiarekin azken bietan]. Baina ez zen hori bakarrik. Arrisku faktoreren bat bazenez tartean, interes fijo bat ezarri zidaten lehenengo hiru urterako, eta nire IRPHari diferenzial bat

ezarri zioten. Horrek zer esan nahi zuen? Nire egun berean baldintza bereko hipoteka sinatu zuen beste batek baino 300 bat euro gehiago ordaindu ditudala nik hilero, urteetan.

Noiz jabetu zinen hortaz?

Egoera okertu zitzaizkidan. Ondo zoazenean, hileko kuota ordaintzeko lain daukazunean, ez zara jabetzen. Baina egun batetik bestera asko aldatu daitezke gauzak, eta niri ere gertatu zitzaizkidan. Lanik gabe gelditu nintzen, eta lagunei galdezka hasi nintzen. Orduan jabetu nintzen nik bezala 35 urtera itzultzeko baldintzarekin diru kopuru bera edo handiagoa eskatu zutenek hileko gutxiago ordaintzen zutela, eta Interneten begira hasi nintzen. Eta horretan ari nintzela Amaia Egañaren suizidioaren berri izan nuen [etxetik kaleratu behar zuten egunean Barakaldon leihoetik bere burua bota zuen eibarraren kasua]. Orduan jarri nintzen Kaleratzeak Stop Gipuzkoa taldekoekin harremanetan.

Azalduiguzu zer den IRPHa.

Hiru indize nagusi daude: Euriborra, IRPHa eta CECA. IRPHak hiru aldaera ditu: IRPH Kutxak, IRPH Bankuak eta IRPH entitateak. Euroaren eremuko diru merkatuan, banku arteko erreferentzia tasari esaten zaio Euriborra, eta indize objektiboa da, Euriborra kalkulatzeko, Europako finantza erakunde nagusiek elkarri utzitako diruaren interesen batez bestekoa ateratzen delako. Hala, ekonomiak gora egiten badu Euriborrek ere gora egingo du, eta alderantziz. IRPH siglek hipoteka-maileguen erreferentzia indizea esan nahi dute gaztelaniaz, eta kreditu erakundeek etxebizitza libreak erosteko emandako hiru urtetik gorako hipoteken batez besteko interes tasatik ateratako indizea da. Beraz, guztiz manipulablea da.

IRPHaren kontrako kanpaina hau Kutxabanken kontra abiatu duzue. Zer dela eta?

Kutxak gustua hartu ziolako indize horri, eta 2005. urtetik aurrera IRPHdun hipoteka-mailegu asko sinatu arazi zituelako. Eta hori kontzienteki, jakina; engainatzen ari zirela jakinda. Gipuzkoan hamar hipoteka-mailegutik zortzi Kutxabankek eman ditu, eta guztira, IRPHak kaltetutako 17.000 lagun inguru gaude.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak esku hartu du IRPHaren auzian, Espainiari kargu hartzeko. Zergatik, eta nola dago kontua?

Bai, hala da. Ekonomia doan moduan doala

ere, bankuek edo kutxek erabakitzen bazuten euren irabaziak handitu behar zituztela, sudur puntan jarritakoa egiten zutelako. 2011ko urrian hartu zion kargu Estrasburgok Espainiari, eta hipotekak IRPHaren arabera ziztutenei ordezkotze indize bat ezartzeko agindu zion. Ordezkotze indizea eskritoretan zehaztuta zutenei, huraxe aplikatu behar zitzaien, eta guri Euribor +1ekoak ezarri zigun Kutxabankek IRPHa desagertzen zenerako. Garai hartan, Espainako Bankuak urtebeteko epea eman zion Gobernuari, eskritoretan ordezkotze indizea zehaztua ez zutenei trantsiziozko indize bat aplikatzeko. Espainiako Gobernuak, baina, oso zaila zela argudiatu zuen 2012ko urrian, eta Espainiako Bankuak sei hilabetezko luzapena eman zion. Bitartean, IRPHduinak behar zutena baino gehiago ordaintzen

“Otsoari belarriak ikusten hasi bezain laster etortzeko esango nieke herritarrei”

egon ziren, jakina. Eta pasatu ziren sei hilabete, iritsi zen 2013ko apirilaren 28a, eta Gobernuak ez zuen ordezkotze indizeirik! Pasatu dira beste bost hilabete ere, eta irailean, Raxoik ordezkotze indizea aurkeztu zuen. Eta hori bai izan zela kaltetuoi barre egitea: IRPH Kutxa, IRPH bankuak eta CECA publikatzeari lagako ziotela esan zuen, baina IRPH entitateei, aurreneko bien nahasketa bat den indize horri, eutsiko ziotela. Ondorioz, eskritoretan ordezkotze indizea zehaztuta ez zutenei, Espainiako kreditu erakundeek etxebizitza libreak erosteko emandako hiru urtetik gorako hipoteken batez bestekoa aplikatzeko ziotela.

Azaroaren 1ean sartu da indarrean arau hori, baina hor ere badago tranpa, salatu duzue.

Bai. Azaroaren 1ean indarrean jarri bada ere, aldaketa hori kuota errebisatzen den egunean aplikatzeko zaigula esan digute. Nire kasuan, 2014ko urrian. Beraz, beste urtebetez neurritz kanpoko klausula bat ordaindu beharko dut hilero (hilean 300 bat euro gehia-

go). Harrapatuta gaude beraz. Ez didazu esango ez denik lotsagarria! Kutxak keinu bat egiteaz gain eta esan: bueno, goazen gure irabazi nahi hori disimulatzera eta aplikatu diezaiogun ordezkotze indize hori hauei legea indarrean jarri den egunetik, errebisio egunera arte zain egon gabe. Bada, ez. Hori ere ez. Atera kalkuluak. Gipuzkoan 17.000 kaltetu gaude, eta hau aplikatzeko balitzaiguke hilean 200-300 euro gutxiago ordaindu beharko genituzke. Ondorioz, 3.000 milioi euro gutxiago jasoko lituzke Kutxak hilean.

Zer sentitzen duzu?

Denetarik pasatu zait burutik, egia esan.

Beste kasu askotan bezala, mugimendu sozialak hartu du hemen ere aurrea. Zein da Kaleratzeak Stop plataformak emango duen hurrengo pausoa?

Eskritoretan ordezkotze indizeirik ez duten guztientzat Euribor +1eko indizea aplikatzea exijitzea, baina oraintxetik.

Askotariko jendea batuko zen Kaleratzeak Stop taldera, sekula halako egoera batean egongo ez zirela pentsatzen zutenetako batzuk ere bai, ziurrenez, ezta?

Dudarik gabe. Ni neuk erraz ordaintzen nuen hipoteka-mailegua sinatu nuenean, baina lana gutxitu zen, eta egun batetik bestera kale gorrian gelditu nintzen. Beste lan batean hasi nintzen gero, baina iaz, urritik otsailera langabezira joan nintzen berriro. Etxea ordaintzeko, eta lanik ez inguruetan! Gogorra da. Orain lanean dihardut, baina iaz lan bera egiteagatik irabazten nuena baino gutxiago irabazten dut hilean. Etxe askotan gertatuko zen: bata, EREra, bestea lanik gabe etxera... Atera kontuak familia hori zein egoeratan gelditzen den egun batetik bestera.

Ez dira gai errazak, eta beharbada, jende bati kostatzen zaio oraindik ere laguntza eskatzea. Zer esango zenieke?

Geu ere pasatakoak garela hortik, eta ez daukala zertan lotsatu. Egoera horretan gaudenak asko gara, eta gehiago izango gara, tamalez. Hobe da garaiz etortzea, gainera, maniobrarako aukera gehiago izateko. Otsoari belarriak ikusten hasi bezain laster etortzeko esango nieke, hau denon kontua delako. Ez itxaron epaitegitik gutuna iritsi atre, hori oso berandu delako. Batzuk etortzen dira banketxea mehatxuka hasten zaienean; badira epaitegian aurrera egindako kasuak ere; eta etxegabetze ordena jasotakoak ere etorri zaizkigu. Eta badira batzuk, gurekin ha-

rremanetan jarri gabe, giltzak entregatu dituztenak ere. Pentsa ezazu nola egon behar duten horiek! Elgoibarren badaukagu kasu bat nahiko aurreratua dagoena, zoritxarrez. Etxea enkantean atera dute, eta berez, hortik desjabetzera bi-hiru hilabete altuen pasatuko dira, baina auzia geldituta dago orain, neurritz kanpoko klausulak arrazoituta epaitegira eraman dugulako.

Noiz hasten dira banketxeak kontu hartzen?

Bi-hiru kuota zor dituzunean. Hileko kuota ordaintzeari lagatzen diozu –eta ez dauka zertan oso-osoa izan behar, nahikoa baita euro bat zorretan lagatzea–, eta bi-hiru hilabetera kargu hartzen hasten zaizkizu banketxetik, berandutzen ari zarela. Orduan, zer egiten du banketxeak? Zure kontura sartzen den diru guztia kendu, zor hori ordaintzeko. Eta diru guzti-guztia kentzen dizute, hemen ez baita enbargo judizialean gertatzen den moduan diru kantitate jakin bateraino bakarrik kendu diezazuketela. Kasu honetan dena kentzen dizute, eta bizitzeko aukera gabe lagatzen zaituzte. Diru beltzean kobratuko duzun lanak bilatzera derrigortzen zaituzte beraz. Halakoetan nomina banketxe horretatik ateratzera animatzen ditugu herritarrak.

Kuotak ordaintzeari lagatzenetik etxe gabe gelditzeraino zer pauso jarraitzen dira?

Kuotak zor dituzunean, berandutze-interesak aplikatzen hasten zaizkizu (%20ra artekoak ere aplikatu dituzte. Gaur egun, legez, ezin da %12koa baino handiagoa aplikatu), eta hemezortzi bat hilabeteko epean, epaitegietan mantso egiten dutelako lan, enkantea ateratzen dute zure etxea. Tasatutako prezioaren %60an jartzen dute enkantean, eta epe jakin batean inork erosten ez badu, hipoteka-mailegua eman duen entitatearentzako gelditzen da. Hortik desjabetze egunera, gehienez, hiru hile pasatuko dira, eta konturatu ordurako, kalean zaude. Bitxikeri bat: Etxe gabetzeak esateko “jaurtitze” hitza erabiltzen dute. Eta horixe da: jaurti, kale gorriara jaurti.

Nolanahi ere, hiru hilabetek ematen dute zer-baiterako aukerarik?

Bai, eta ez. Neurritz kanpoko klausulak argudiatuta salaketa jartzen dugu guk, salaketa guztiak aztertu behar dituelako epaileak, eta aztertu bitartean, dena gelditzen delako. Eta hori egin dezakegu Estrasburgoren epaia



“Bi-hiru kuota zor dituzunean hasten dira banketxeetatik kontu hartzen”

egon zelako, ordura arte ez genuelako inolako aukerarik prozesu hauek gelditzeko, azken batean etxe-jabeak ez zuelako hitzik. Salaketekin lortzen dugu hogeitabi hilabetez luzatzea kontua, baina horrek badu bere kontra efektua ere, tarte horretan berandutze-interesak ordaintzen jarraituko duelako kaltetuak. Baina ez dago besterik. Epe hori luzatu, eta tarte horretan, epaile zentzudun bat tokatzea, badiarelako halako batzuk ere. Zoru-klausulen kontrako ebazpenak egon dira, adibidez, Espainia hegoaldean.

Azalduguzu hori.

Herritar batzuek auzitara eraman zituzten BBVA, Caja Sur eta orain gogoan ez daukadan beste kutxa bat, zoru-klausulak ezartze-

agatik. Epaileak herritarrei eman zien arrazoia lehenengoan, eta helegiteak tarteko, Auzitegi Gorenera iritsi zen auzia. Azkenean, herritarrek irabazi zuten. Jurisprudentzia ezarri zuen epai hark, gainera. Hau da, hiru finantza erakunde horiek ezin dute gehiago zoru-klausularik ezarri Espainian. Entitate horiek bazuten Gorenean errekurritzea, baina ez zuten egin, handik Estrasburgora joko lukeelako gaiak, eta badakitelako Estrasburgon jai dutela.

Bide bera jarraitzea badago hemen?

Bai. Nik eraman dezaket auzitara Kutxabank, eta irabazi dezaket auzia, baina Kutxabankek ez du helegiterik jarriko, arriskua daukalako gaia Gorenera iritsi arte eusteko nik borroka horri, eta han galduko balu, jurisprudentzia ezarriko litzatekeelako. Alegia, ezingo lioke gero beste inori klausula hori ezarri. Horregatik, nahiago dute bana-ko auziak galdu, denak galtzeko arriskua hartu baino.

Bi mozio aurkeztu dituzue udalbatuetan. PPK ezetza eman du, EAJ abstenitu egin da, eta gainerakoek baietza eman dute.

Eta zenbat kontraesan egon dira? Legebiltzarrean, Kaleratzeak Stop-ek idatzi zuenaren bizkar, mozio bat aurkeztu zuten bere garaian, gurearen oso antzekoa. EAJ eta PSE-EEK baietza eman zuten, baina baldintza batekin: Kutxabank jartzen zuen lekuan finantza-erakundeak jartzeko. Errealitatean, baina, IRPH indizedun mailegu guztiak Kutxabankenak dira. PSE-EEK eta EAJK udaletara eraman zuten mozio hori, eta onartu zuten. Gurea, hori bai, atzera bota zuten, Kutxabank jartzen zuelako. Aztertu dute Legebiltzarrean, udaletan, eta aldundietan, eta halako batean iritsi zen Kutxabankek Administrazio Kontseiluan bozkatzeko eguna ere. Bozketarik garrantzitsuena zen, ordura artekoak asmo-deklarazioak baino ez zirelako, Bada, han, EAJK, PPK eta PSE-EEK, ezetza eman zuten.

Zein aholku emango zenieke elkarrizketa hau irakurtzen ari direnei?

Irakurtzeko ondo zer sinatu zuten, eta zailtzarrik badute galdetzeko. Asko holaxe oharatu direlako IRPH indizea dutela ere. Eta etortzeko Kaleratzeak Stop-era, euren kasua argitzera eta besteena argitu dadin lan egitera.

Emakumeen kontrako isileko jarrerez ohartarazi du Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak azaroaren 25aren harira

Astelehenean 19:00etatik aurrera Kalegoen plazan egingo duten elkarretaratzera deitu dute



Elena Alonso, Bittori Zabala, Esther Alonso, Gloria Santiago, Izaskun Arozena, Pili Martinez eta Enkarni Migales.

Indarkeria matxista gure inguruan dago, eta gure kulturaren, gizartearen eta eguneroko jokabideen parte da. Ez da salaketa berria, baina errealitateak ez du salatzen jarraitzea ez den beste aukerarik ematen. Halaxe uste du Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak, eta horrexegatik, Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko nazioarteko egunaren harira (azaroak 25), gizonen eta emakumeen arteko harremanak “desberdintasunean” oinarritzen direla ohartarazi dute; arazoa estrukturala dela azken batean, eta horrenbestez, egoera horren arrazoen gaineko hausnarketa egitea ezinbestekoa dela. Emakumeen kontrako indarkeria mota oro salatu dute, eta ahalegin bereziarekin, indarkeria horren adierazpide isilenak.

“Sexu mikroerasoak” deitu diete sarri askotan oharkabean pasatzen zaizkigun emakumeen kontrako eraso horiei. “Mikroerasoak txertatuta daude gure neska gazteen egunerokotasunean”. Adibide zerrenda luzea da: bikotekideak arropa edo lagunak kontrolatzea, jazarpen zibernetikoa, amodio froga gisa hartzen den jeloskorke-ria... Nesken “sexualizazioak” ere kezkatuta ditu Kontseilukoak. Hau da, emakumeen gorputza sexu objektu huts gisa hartzeak. Horren harira gogoratu dute askotan generoaren arabera batzuei eta besteiei ematen zaizkien jostailuen bidez edo protagonisten rol estereotipatuak ematen dizkieten ipuinen bidez, sortzen diren desberdintasunek ez dutela egoera hori hobetzen laguntzen.

Horregatik guztiagatik, prebentziorako eta sentsibilizaziorako politikak bultzatzen jarraituko du Kontseiluak, Udalarekin eta elkar-

teekin elkarlanean. Jarrera sexistak sustatzen dituzten jokaeren inguruan arreta deitzeko eta emakumezkoen artean jabekuntza eta kontzientzia kritikoa sustatzeko udal-estrategiak lantzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

Protokoloa eta datuak

laz jarri zuten martxan Elgoibarko Udalean genero indarkeriaren kontrako protokoloa eta horren barruan lan ezberdinak egin dituzte, baina, beharbada, tratu txarrak jasan duten emakumeen taldea sortu izana da aipagarriena. Eibarren badute halakoetan eskarmentua, eta hango eredia jarraitu dute Elgoibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza psikologikoa jasotzen duten zazpi-zortzi emakume batu dituzte taldera. Prebentzioaren alorrean ere lan egin dute, eta hainbat ikastaro antolatu dituzte horren inguruan, ikastetxeekin elkarlanean. Horren barruan Beldur Barik lehiaketa ere jarri dute matxan, Elgoibarko Izarra kultur elkartearekin elkarlanean. Urtxintxak dinamizatu ditu saioak, eta dagoeneko bi lan aurkeztu dituzte gaztetxoek lehiaketara.

Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko datuak ere azalera-tu ditu Kontseiluak. Urtarrilaren 1etik azaroaren 19ra artekoan, 21 tratu txar kasu zenbatu dituzte Elgoibarren, eta bi sexu eraso. Datuak asko dira, baina badira bi aipamen berezia merezi dutenak. Batetik, erasotzaileen profila gaztetu egin dela. Hau da, erasotzaileak gero eta gazteago dira [24,4koa da batez besteko adina]. Eta bestetik, tratu txar kasu gehienak bikote-harreman baten barruan gertatu direla, izan bikotekideen artean edo bikotekide izandakoen artean.

Euskararen Eguneko manifestuarentzako atxikimenduak batzen hasiko dira gaur

Elgoibarren bizi diren beste hamaika hizkuntzara itzuli dute idatzia



Euskarak 365 egun izeneko kanpaina jarri du martxan Euskararen Nazioarteko Eguna herritarrek elkarrekin antolatu eta ospatzeko sortu den asanbladak. Besteak beste, Elgoibar-ko eta Mendaroko etxe banatara kanpainako kartel bat bidali dute gaur, BARRENAREN ale honekin batera, norberak bere etxeko leihoan, lantokian, portalean edo nahi duen lekuan kartela itsasteko. Herritarren atxikimendua eta konpromisoa lortu nahi ditu kanpainak.

Era berean, abenduaren 3an bertan Kalegoen plazan egingo duten ekimenarekin batera, manifestu bat ere prestatu dute, eta atxikimenduak batuko dituzte datozen bi asteetan. Internetez eman dakioko atxikimendua manifestuari (www.elgoibarkoizarra.com) edo abenduaren 30ean kalean jarriko duten postura gerturatuta bestela. Horrez gain, herriko hainbat puntutan (liburutegian, jubilatuen etxean, tabernetan, eskoletako harreretan, eta Pitxintxun) ere jarriko dituzte atxikimendua idatziz jasotzeko paperak.

Euskararen alde, hizkuntza guztien alde idatzi duten manifestuan esaten duten moduan, euskararen alde egitea munduko hizkuntza guztien alde egitea da. Munduko hizkuntza-aniztasunaren alde egitea, hain zuzen ere. Eta hori jakinda, eta kontuan izanda Elgoibarren beste makina bat hizkuntza ere bizi direla, horiek hitz egiten dituztenengan pentsatuta manifestua hizkuntza ugaritara itzuli dute. Horretarako, herrian bizi diren etorkinen laguntza izan dute, eta asanbladak eskerrak eman dizkie itzulpenetan parte hartu dutenei.

Agurtzane Sololuze artistaren 'Poesiaz' erakusketa ikusteko aukera Kultur Etxean

Margolanak, zetazko ohiak eta poesia uztartzen dituen erakusketa jarri du ikusgai Agurtzane Sololuze Txurruka artistak Elgoibarko Kultur Etxean. Haizea emakume taldeak antolatu du erakusketa, Elgoibarko Udalaren laguntzaz, eta artistak *Poesiaz* jarri dio izenburua. Atzo zabaldu zuten erakusketa, eta hilaren 30a arte egongo da ikusteko aukera, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Batez ere, zetaz margotutako lanak sortu ditu Agurtzane Sololuzek, batzuk *pachwork* teknika erabilia, eta poesia gehitu die, "eskulanak poesiarekin harremanetan jarri eta haien arteko elkarriketa sortzeko". Horretarako, poesia bana eskatu die izen handiko poeta eta bertsolariei, eta hauen parte-hartzea lortu du: Harkaitz Cano, Luigi Anselmi, Miren Agur Meabe, Iñaki Irazu, Arantxa Urretabizkaia, Kirmen Uribe, Tere Irastortza, Castillo Suarez, Leire Bilbao eta Uxue Alberdi.

Lou Topet taldearen kontzertua gaur, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan

Lou Topet talde zarauztarra ekarriko du gaur Sinuosek Elgoibarrera. Lau lagunek osatzen dute taldea eta folk doinuak sortzen dituzte. Soinu amerikarrekin giro lasai eta balsamikoak sortzen ditu laukote honek, baina era berean, momentu bizi eta erritmikoak ere lantzen dituzte folk estiloari leihal izanda. Kontzertua 23:00etan hasiko da, eta hiru euroan jarriko dituzte sarrerak salgai, Kultur Etxeko sotoan bertan.

Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak

Atzo hasi ziren Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak Elgoibarren, eta gaur, Ikastolako ikasleak kalejiran irtengo dira, 8:30ean, Kalegoen plazatik. Bihar, berriz, Udal Musika Bandako hildako musikarien omenezko meza izango dute, 19:00etan, San Bartolome parrokiari, eta etzi kontzertu berezia eskainiko du Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian (12:30). Bost pieza joko dituzte: S.Loperen *Valencia* pasodoblea, Demerssemannen *Fantasia para saxo alto*, A.Borodinen *El Principe Igor*, N.Iwairren *American graphity* eta J.P. Moncayoren *Huapango*.

Udalak abenduaren 17ra aurreratu du egutegia aurkezteko ekitaldia

Abenduaren 18an barik abenduaren 17an egingo du azkenean Elgoibarko Udalak 2014rako prestatu duten egutegia aurkezteko ekitaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gela egingo dute ekitaldia, 19:30ean hasita. Elgoibarko Udalak Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan antolatu duen seigarren argazki lehiaketa honetan 50 herritarrek parte hartu dute, eta guztira, 262 argazki aurkeztu dituzte. Sari-dunek 70 eurora jasoko dituzte argazkiko.

Errekorra ezarri du Iñigo Larizek Karakateko Igoeran

Eguraldi hotzari aurre egin, eta 94 korrikalarik parte hartu zuten lasterketan

Hogeigarren aldia izanik, berezia zen aurtengo Karakateko Igoera, eta erantzun zuten zale nahiz korrikalariak. Gau guztian atertu ere egin gabe egin zuen euria, eta hotz esnatu zen eguna zapatuan, baina, hala ere, 94 lagunek izena eman zuten korrikarako, eta ohi legez, jendetza handia batu zen goian, animoak ematera. Korrikalarien artean, Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen azkarrena. Bide berri batetik egin zuen gorako bidea, eta irabazteaz gain errekorra ezarri zuen, 27:39ko denborarekin. Zortzi segundoan ondu zuen 2011n Oier Ariznabarretak ezarritako marka. Hain justu ere, Ariznabarreta bera izan zen bigarrena zapatuan. Hirugarren Josu Uriarte markinarra sailkatu zen. Emakumezkoetan, berriz, Nahia Quincoces mendexarra izan zen azkarrena (36:31), eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra sailkatu zen bigarren (37:25). Argazki gehiago: www.elgoibAREN.net



Bihar jokatuko dute Mendaron Alkortako Igoera

10:30ean irtengo dira korrikalariak Herriko Enparantzatik

Bihar, azaroak 23, jokatuko dute Alkortako Igoera Mendaron, 10:30etik aurrera. Udaletxe azpitik irtengo dira korrikalariak, eta 4,7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute Alkorta baserri pareraino. Asfaltozko bidea izango da, eta tartean %11 inguruko aldapak ere gainditu beharko dituzte. Parte hartzeko interesa dutenek bihar bertan izango dute izena emateko

aukera, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago. Korrikalari bakoitzak bi euro ordaindu beharko ditu izenemateagatik. Lasterketa bukatzen denean, haiketako eskainiko dute antolatzaileek, Alkortara gerturatzeko diren guztientzat.

laz Iñigo Larizek (21:07) eta Nerea Amilibiak (27;5) irabazi zuten lasterketa. Gizonezkoetan Iñigo

Lazkano mendarorak dauka errekorra 20:24 denborarekin, eta emakumezkoetan, berriz, Amilibiak berak 25:49 denborarekin.

Parot doktrinaren kontra antolatzen dute lasterketa hau. Aurten berezia izango da igoera, izan ere, 27 urteko espetxe zigorra bete ondoren, aste honetan utzi baitute aske Jokin Urain, Alkorta baserriko semea.

Munduko seigarren lasterkari emakumezko onena izendatu dute Maite Maiora

Munduko mendi lasterkari onenen 2013ko zerrenda kaleratu du Nazioarteko Mendi Lasterketen Federazioak (ISF). Mendiko maratoiak eta maratoi erdiak kontuan hartuta osatutako sailkapenean, seigarren postuan ageri da Maite Maiora mendarorra. Aurten bost kontinenteetan jokatu diren 21 lasterketetako emaitzak hartu dituzte kontuan, eta 29 herrialdetako 216 antxixikariren emaitzak neurtu dituzte. Guztira, ehun gizonezko eta 50 emakumezko jasotzen ditu zerrendak. Guztien buru Kilian Jornet katalana eta Emelie Forsberg suediarra ageri dira, beste behin ere. Euskaldun askoren izenak ere ageri dira zerrendan: gizonezkoetan Ionut Zinca Gasteizen errotutako erumaniarra bigarren postuan dago eta emakumezkoetan, berriz, Maite Maiora mendarorra da zerrendako lehen euskalduna, seigarren postuan,

25 elgoibartarrek hartu zuten parte Azpeitiko Igeriketa proban



Elgoibarko igerilariek hasi dute denboraldia. Joan zen zapatuan jokatu zuten aurtengo txapelketako lehen jardunaldia, eta Elgoibartik 25 igerilarik hartu zuten parte proban. Modalitate desberdinetan hartu zuten parte, eta Julen Iriondo elgoibartarra lehen postuan sailkatu zen 50 metro bizkarrezko proban.

Jaime Martinez, Gipuzkoako txapelkunorde arku tiraketan

Gipuzkoako Arku Tiro Txapelketa jokatu zuten joan zen domekan Ordizian, eta Jaime Martinez arkulariak bigarren postua eskuratu zuen. Basoan barrena jokatu zen txapelketa, eta Martinezek arku zuzenaren modalitatean hartu zuen parte.

Angel Ibarluzea lehenengo dago, Euskadiko Hiru Txirlo txapelketan

Joan zen zapatuan Azpeitiko bolatokia jokatu zuten Euskadiko Hiru Txirlo txapelketako jaurtialdia, eta elgoibartarrak sailkapen nagusiko aurreko postuetan sartu ez baziren ere, txapelketako sailkapen nagusian Angel Ibarluzea aiastiarra dago lehen postuan. Hurrengo jaurtialdia Bolibarren izango da, Iruzubietako bolatokia.

60 neska-mutilek eman dute izena Sanlo eskubaloi eskolan

Kirola eginez ondo pasatzea da arduradunen helburua



Sanlo eskubaloi eskolak 60 neska-mutilekin hasi du aurtengo denboraldia. Laugarren mailatik seigarren mailara arteko gaztetxoak daude eskolan, eta antolatzaileak "gustora" badaude ere, seigarren mailako mutilak falta dituztela nabarmendu dute. Gaztetxo horiei egin diete deia klubetik, entrenamenduetara agertzeko eta partidaren bat jokatu ostean erabakitzeko jarraitu nahi duten edo ez.

Eskubaloi Eskolak ilusioz ekin dio denboraldiari, eta dagoeneko, hainbat irteera egin dituzte inguruko herrietara eskubaloian jokatzera. Eskolaren erronka nagusia "neska-mutilen bete-beharrak" betetzea da. Eskubaloia eta kirola ondo pasatzeko erreminta gisa aurkeztu nahi diete gaztetxoei, eta "pertsona bezala garatzeko baloreak" transmititzen saiatuko dira arduradunak, bai kirol arloan eta baita giza alorrean ere.

Lizarpera egin zuten mendi irteera Ikastola eta Herri Eskolako umeek Morkaikorekin



Mendaroko Gaintxipixa mendira irteera antolatu zuen Morkaikok joan zen domekarako, baina eguraldi euritsua zela eta, Lizarpen bukatu zuten ibilbidea. Hiru ordu eta erdiko ibilaldia egin zuten, Herri Eskolako eta Ikastolako umeekin. Lizarpe azpiko aterpean egin zuten hamaiketakoa, eta beheranzko bidea hartu zuten berri. 40 bat ume izan ziren guztira, eta antolatzaileak pozik agertu dira ikasleek emandako erantzunarekin.

EMAITZAK

FUTBOLA

Leioa 2 – Haundi 1 (3. maila)
Anaitasuna 4 – Elgoibar 0 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Santurtzi 0 (Neskak)
Elgoibar 4 – Zarautz 1 (Jub.)
Zarautz 0 – Elgoibar 5 (Kad. A)
Aurrera 3 – Elgoibar 3 (Kad. B)
Lagun Onak 0 – Elgoibar 8 (Inf.)
Amaiak Bat 3 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)
Anaitasuna 3 – Elgoibar 2 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Labastida 6 – Concepto Egile Elg. 1 (2B)
King Kong Elg. 1 – Egintza Obaba 6 (Jub.)

SASKIBALOIA

Viento Sur Elg. 63 – MU 72

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 35 – Zaragoza 37 (Sen. mut.)
Lauko Elg. 26 – Dosa BM 27 (Sen. nesk.)
Gabaz Elg. 26 – Amenabar Zarautz 16 (Sen. mut.)
Ermua 14 – Tecnifuelle Elg. 32 (Kad. nesk.)
Txarriduna Elg. 23 – Egibide 21 (Kad. mut.)
Murgil Elg. 21 – Eibar 18 (Kad. nesk.)
Aloña B 13 – Bankoa Elg. 31 (Inf. mut.)
Bergara 9 – Deca Elg. 21 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 15 – Cometel Elg. 13 (Inf. nesk.)
Ikus Elg. 21 – Aiala Zarautz 3 (Inf. nesk.)

PILOTA

Eskuz

Lagunak 16 – Gailurretarantz 22 (2. mailako jub.)
Lagunak 2 – Ziotza 22 (2. mailako kad.)
Palaz
Lagunak 7 – Usurbil 25 (2. mailako nag.)
Lagunak 25 – Alzatarra 11 (2. mailako nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
10:00 Elgoibar – Ikasberri (Kad. B)
12:00 Elgoibar – Lagun Onak (Kad. A.)
16:30 Haundi – Zalla (3. maila)
Domeka, 24
16:30 Elgoibar – Ikasberri (Erreg.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 24
12:30 Concepto Egile Elg. – Sala Quinto (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 23
13:00 Bankoa Elg. – Eibar (Inf. mut.)
16:00 Pneumax Elg. – Leizaran (Kad. mut.)
17:30 Beristain Elg. – La Salle (Jub. mut.)
Domeka, 24
10:00 Deca Elg. – Aloña Mendi B (Inf. mut.)
11:15 Txarriduna Elg. – Txikixa (Kad. mut.)

LANA

ESKAERA

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Edozein ordutegi. ☎ **618 814 064**
- Garbiketa edo zaintza lanak egiteko prest nago. Elgoibarren bizi naiz, eta inguruko herrietan ere lan egingo nuke. ☎ **617 043 058**
- Emakume gazte eta euskalduna, asteburuetan lan egiteko prest. Zerbitzari lanak, garbiketa lanak... ☎ **687448287 (Eider)**
- Klase partikularrak ematen ditut. DBHko edozein irakasgai. Merke. ☎ **676 722 556**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Haur Hezkuntzako titulua daukat. Esperientziaduna. ☎ **610 658 914 / 943 743 015**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lan bila: adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan egingo nuke lan. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**
- Mutil arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **606 072 354**
- Emakumea eskaintzen da, geriatria ikasketekin. Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 741 080**

- Lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Matematika, fisika, marrazketa... Euskaraz zein gaztelaniaz, banaka edo taldeka. DBH eta Batxilergo mailetan. ☎ **699 495 278**
- Gizonezkoa lan bila. Esperientzia handia igeltsero eta lorezain lanetan. ☎ **628 818 558**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako. Interna ere bai. ☎ **633 781 038**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. ☎ **606 354 982**
- Neska eskaintzen da garbiketarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ **616 457 254**

ETXEBIZITZAK

- Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai Elgoibarren. Hiru logela, berogailua, trastelekua. ☎ **637 046 720 (Ander)**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 215 567**
- Emakumea pisu bila dabil. ☎ **630 410 294**
- Pisua alokatzen da. Bi logela, egongela handia, sukaldaria, igogailua, terraza eta ganbara. Altzariekin. ☎ **646 581 666**

LOKALAK

- Lokala alokagai, San Roken. Leihate handiak, aparkatzeko leku egokia. Gazte nahiz elkarteentzako. ☎ **943 744 467 / 649 446 716**

BESTELAKOAK

- Baltasar Pilotazale Elkarteak bazkide izan nahi dutenentzat hainbat plaza ditu. Bazkide egiteko edo informazio gehiagorako ondorengo helbidera idatzi: baltasarpilotazale@gmail.com
- 11 hilabeteko hispaniar arrazako txakurra galdu dut. San Pedron ikusi dute azkeneko. Norbaitek ikusi badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **627 820 513 (Juan)**

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- 1974an jaio eta Ikastolan ikasitakoek 8. mailako afaria egingo dute azaroaren 30ean, Sigma jatetxean, 22:00etan. Izena emateko azken eguna, azaroaren 25a. 35 euro sartu behar dira Laboral Kutxako kontu korrante honetan: **3035 0007 23 0071033857**. ☎ **678 674 142 (Anjel) / 677 260 878 (Iñigo)**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Duela egun gutxi komunitateko bilera egin genuen. Presidenteak esan zigun telefonia mobileko enpresa baten eskaintza jaso zuela teilatuan antena bat jartzeko. Bizilagun batzuk konforme daude, tartean presidentea bera, baina beste batzuk kontra gaude eta uste dugu gure erabakia aintzat hartu behar dela. Zenbatek egon behar dute konforme erabakia hartzeko?

Elementu komunen balizko alokatze batetaz ari gara kontu honetan. Teilatua elementu komuna da, eta telefonia konpainia horri alokairuan emateko, etxe-jabeen hiru bostenen onspena behar da ezinbestean, hau da partizipazio kuoten hiru bostenen baitza behar da. Bilera horretan parte hartu zutenen nahiz egon ez zirenen botoak hartu behar dira kontuan. Era berean, bizilagun batek edo gehiagok uste badute antena horrek bereziki kalte-tuko dituela, haien onspena ere eskatuko da. Gehiengo hori lortuko balitz, kontra daudenek ere onartu beharko lukete erabakia.

Gomendioa: Konpainia horrekin sinatuko dugun kontratuan komunitate horren interesak zainduko dituzten klausulak agertu beharko dira. Alokairuagatik jasotzen den dirua partizipazio kuotaren arabera bana daiteke gero etxe-jabeen artean.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Danel**, gure politt, azaroaren 21ean 3 urte bete zenituera. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak, **Elene**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu pila bat familiakoen, eta bereziki, Jakesen, Markelen eta Jonen partez.



• Zorionak, **Iker**. Gure txapeldunak 7 urte beteko ditu larunbatean. Patxo pila bat familiakoen, eta bereziki, Markelen eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Beñat**, gaur 6 urte egingo dituzulako. Muxu asko, etxekoan partez, potxolito!



• Zorionak, **Jone**, eta muxu zaparrada bat zure urtebetetze potolo honetan. 10 urte! uauuu.



• Zorionak, **Unax**, gaur urtetxo bat egin duzula, txapeldun! Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Malen eta Naroaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, Dagoeneko 5 urte! Oso ondo pasa bihar-ko eguna! Patxo, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **aïtitta Mauro**, gaur zure eguna delako. Besarkada bat etxekoan, eta bereziki, Paul, Laura eta Nastiaen partez.



• Zorionak, **txapeldun!** Jadanik 8 urte! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak zuen urrezko ezteienatik! **50 urte elkarrekin**, eta izan daitezela gehiago! Ondo pasa, etxekoan partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK




51ko kintoen bazkaria egin genuenontzako **oharra**: Gabonetako loteriaren bederatzia dezimo jokatu ditugu 97.040 zenbakira. Ondo pasa Gabonak!

OSPAKIZUNAK




Eskerrik asko **Artetxeko afarira** etorri zineten guztioi. Oso ondo pasatu genuen. Datorren urtera arte.



Azaroaren 25ean
berdintasun jolasak
ludotekan, 17:30etik aurrera

Azaroaren 25a **indarkeria matxistaren aurkako eguna** dela eta, aste guztian zehar erakusketa eta bideo foruma gaztelekuan



22 barixakua

Santa Zuzilia

8:30 Kalejira

Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute, Kalegoen plazatik ikastolaraino.

Beldur Barik

17:00 Pankarta

Beldur Barik leloarekin pankarta egingo dute Mendaroko Gaztelekuan. Zapatuan emango diote segida lanari.

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Lou Topet taldeak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera: 3 euro.

23 zapatua

Berdintasuna

10:30 Joku hezitzaileak

7-10 urte bitarteko gaztetxoentzat, Lekuederren.

Hitzaldia

11:00 'Dibortzioa

berdintasunaren ikuspuntutik' Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxean.

Dantzaldia

12:00 Haritz, 40 urte

Haritz dantza taldearen 40. urteurrenako ekitaldia. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Herriko Antzokian).

Bakarriketa

20:30 El Peli

Lanbroa tabernan.

24 domeka

Musika

12:30 Udai Musika Bandaren kontzertua

Santa Zuziliako kontzertu berezia.

Delikula

18:00 Indarkeria

Emakumeenganako indarkeriarekin lotutako filma, San Agustin antzokian.

25 astelehena

Ipuin kontalaria

17:00 Printzesak kontu kontari

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira, Maider Galartzak eskainiko du saioa. Liburutegian.

Tailerra

17:00 Zibilizazioak

Haizeak antolatuta, Zibilizazio desberdinen sorreraz arituko dira. Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Beldur Barik

17:00 Txapa tailerra

Mendaroko ludotekan 18:30 Eskulanak Beldur Barik leloarekin Mendaron pankarta egingo dute, eta puntu liladun pultserak ere egingo dituzte.

Elkarretaratzea

19:00 Indarkeria mabixistaren kontra

Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta, Kalegoen plazan.

26 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura

Haizeak antolatuta, Christopher Morleyren *La libreria ambulante* liburua landuko dute.

Ikastaroa

18:00 Elkar ondo trata dezagun

Kalamua guraso elkateak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

28 eguena

Bideo-forum

18:00 Bakarfadea

Kultur Etxean.

GUARDIAK

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Egunez	Gauetz
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
22 Zabaleta	Etxeberria
23 Barrenetxea	Barrenetxea
24 Barrenetxea	Barrenetxea
25 Ibañez	Yudego
26 Garitaonan.	Garitaonandia
27 Etxeberria	Etxeberria
28 Fernandez	Barrenetxea

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«Gravity»

22, barixakua: 22:15

23 zapatua: 19:00/22:15

24, domeka: 19:00/22:15

25, astelehena: 21:30

«Justin y la espada del valor»

24, domeka: 16:30

«Arraianos»

Ongarri zinekluba

28, eguena: 21:30



I. URTEURRENA

LEONISA ORODEA PEREZ

2012ko azaroaren 19an hil zen, 80 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroak 24,
goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

"Maite zaitugu; gurekin egongo zara betiko"



I. URTEURRENA

MANUEL REMENTERIA GURRUTXAGA

2012ko azaroaren 26an hil zen, 92 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barixakuan, azaroak 29,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



I. URTEURRENA

PAKO ARRIZABALAGA URBIETA

*"Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan"*

Familiakoak

2012ko azaroaren 24an hil zen, 83 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 23an, izango da
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

ISABEL RUIZ GOMEZ

*"Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan"*

Zure sendiak

2013 azaroaren 20an hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA